



# BERRI PAPER RA

2022ko abendua • 56. zenbakia

## Asteasu, ASTIGARRAGA eta Hernani GEHITUTA EHINGO DIO UEMAK URTE BERRIARI

Abenduaren 17az geroztik UEMAKO KIDE DIRA HIRU HERRIAK. HORIEKIN, 97 UDAL BILTZEN DITU GAUR EGUN UEMAK, ETA GUZTIEN ARTEAN 302.500 BIZTANLEKO LURGUNE EUSKALDUNA OSATZEN DUTE. Gainera, HURRENGO HILABETEETAN MANKOMUNITATERA UDAL GEHIAGO GEHITZEA AURREIKUSTEN DA **2. OR.**



Argazkia: Hernaniko Udala.

**EUSKARAREN ERABILERA, ATZERAKA**  
Bilakaera soziolinguistikoa aztertu du UEMAK  
ONDORIOZTATU DU ERABILERA ATZERAKA  
ARI DELA ETA GALERARI AURRE EGITEKO  
NEURRIAK EZINBESTEKOAK DIRELA. **3. OR.**

**IKUS-ENTZUNEZKOETAN ERDARAK NAGUSI**  
Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoa ikertu dute  
EUSKARA ERDAREN OSO AZPITIK DAGO MUSIKAN,  
TELEBISTAN, SARE SOZIALETAN, STREAMING  
PLATAFORMETAN ETA BIDEOJOKOETAN. **4. OR.**



# UDAL BERRIAK

## EUSKARAREN LURGUNEA ZABALDU ETA SENDOTU NAHIAN

**Azken asteotan zenbait udalek egin dute UEMAKO KIDE izateko eskaera, eta UEMAK abenduaren 17an Deban egindako Batzar Nagusian onartu berri ditu udalen eskaera berriak. Horrela, Asteasu, Hernani eta Astigarraga gehituta, 97 udal dira dagoeneko mankomunitateko kide, eta inoiz baino zabalagoa da denen artean osatzen duten Lurgune Euskalduna. Zehazki, 302.500 biztanleko Lurgunea osatzen dute UEMAKO KIDE DIREN HERRIEK.**

Udalerri euskaldunak aldatzen ari dira. Horrela erakusten dute azken datu soziolingustikoen, eta datu horien arabera UEMAKO kide izateko moduan dira lehen aldiz zenbait udalerri. Beste zenbaitek, berriz, orain hartu dute erabakia, euskararen ezagutzak gora egin arren erabilera apaltzen ari delako. Arrazoi batzuegatik zein besteengatik, azken asteotan Asteasuko, Hernaniko eta Astigarragako udalek erabaki dute UEMAKO kide izatea, eta UEMAK joan den abenduaren 17an egindako Batzar Nagusian onartu ditu herri berrien eskaerak.

Udal barruko erabilera planak eta gainerakoak bideratzeaz gain, UEMAREN ekarpenak eta esperientziak udalen euskara zerbitzuak eta hizkuntza politikak sendotuko dituelakoan daude udal berriak. Datu soziolingustikoen harira, momentua “gakoa” delakoan daude, eta erabilerari eusteko ezinbestekoa irizten diote herritarren kontzientziaziarioi.

### 100 UDALEN MUGARRIA, GERTU

UEMAKO kide diren herrien kopurua etengabe ari da gora egiten azken urteotan, batez ere azken agintaldian, eta gero eta gertuago du mankomunitateak 100 udalen mugarrira.

2023an egingo ditu UEMAK hurrengo batzarrak, eta horietan ere herri berriak gehitzea eta 100 udalen muga gainditzea da aurreikuspena.



**HERRIA: Asteasu**  
**HERRIALDEA: GIPUZKOA (Tolosaldea)**  
**BIZTANLEAK: 1.549**  
**EUSKALDUNEN INDIZEA: %86,8**

Azaroaren 23ko udal osoko bilkuran erabaki zuen Asteasuko Udalak UEMAN sartzeko eskaera egitea.

Erabakia aho batez hartu zuten, “momentu hau gakoa delako”. Pili Legarra alkatearen hitzetan, “ezagutza ez doa beherantz Asteasun, baina gora egiteko baliabideak beharrezkoak ditugu, arnagunea garen arren aldaketen aurrean zaurgarriak garelako oraindik. Hauskorrak dira gure herri txikiak, eta hizkuntza politika propioak landu nahi ditugu, UEMAREKIN eta Tolosaldeko beste udalekin batera”.



**HERRIA: Hernani**  
**HERRIALDEA: GIPUZKOA (Buruntzaldea)**  
**BIZTANLEAK: 20.362**  
**EUSKALDUNEN INDIZEA: %70**

Orainsu arte Hernanik ez zituen betetzen UEMAKO kide izateko baldintza soziolingustikoen, baina Eustatek urrian zabalduzako eta UEMAK azaroan ezagutarazitako zentsuaren datuak kontuan hartuta, gaur egun %70 da Hernaniko euskaldunen indizea. Datu horrekin, UEMAKO kide izateko modua du lehen aldiz, eta azaroaren 29an egindako udal osoko bilkuran onartu zuen UEMAKO kide izatea. Biztanle kopuruari dagokionez, UEMAKO bigarren herri handiena da, Zarautzen atzetik.



**HERRIA: Astigarraga**  
**HERRIALDEA: GIPUZKOA (Buruntzaldea)**  
**BIZTANLEAK: 7.185**  
**EUSKALDUNEN INDIZEA: %74,2**

Azken urteotan euskararen ezagutzak gora egin duenez, euskaldunen indizea ere gorantz ari da Astigarragan, baina euskara lehen hizkuntza dutenak edota etxean erabiltzen dutenak behera doaz, nabarmen. Beraz, herritarren kontzientziaziarioan eragitea giltzarria delakoan dago Astigarragako Udala, eta horretarako UEMAREN esperientzia eta laguntza bidelagun izango du. Abenduaren 15eko udal osoko bilkuran erabaki zuten UEMAKO kide izatea.





## UDALERRI EUSKALDUNENETAN ATZERAKA ARI DA EUSKARAREN ERABILERA, ETA GALERA NABARMENA DA ARNASGUNEETAN

**UDALERRI EUSKALDUNEN EGOERA SOZIOINGUISTIKOAREN BILAKAERA AZTERTU DU UEMAK, EUSTATEK URRIAREN AMAIERAN PLAZARATUTAKO BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUA ITURRI GISA HARTUTA. EZAGUTZAK GORA EGIN DU, BAINA ARNASGUNEETAN GALERA HANDIA IZAN DA, BAI ERABILERA ETA BAI LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA DUTENEN ZENBATEKOAN.**

Udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira, euskararen indizea %70etik gora duten herriak hartzen direnez udalerrri euskalduntzat. Horien bilakaera aztertuta, ordea, soziolinguistikoki aldatzen ari direla ikusten da. Ikerketarako hainbat datu aletu ditu UEMAK: udalerrri euskaldunetako demografia, udalerrri euskaldunak eta UEMAKo udalak, euskararen ezagutzaren bilakaera, lehen hizkuntza eta hizkuntza-transmisioa, udalerrri euskaldunen tipologia edota etxeko erabilera, besteak beste.

Ondorioak argiak dira: udalerrri euskaldunen kopurua areagotzen ari da, ezagutzak gora egin duen udalerrriak ari direlako %70eko langa gaintitzen. Oro har, ezagutzaren beheranzko joera eten egin da udalerrri euskaldunetan, baina aurreko urteetako galera ez da berreskuratu, eta horrek ondorio nabarmenak ditu euskararen erabilera. Zehazki, etxeko erabilera-beherakada nabarmena da, eta galera hori ez da eten oraindik.



Euskara lehen hizkuntza dutenen edota etxean batez ere euskara erabiltzen dutenen kopuruak nabarmen egin du behera udalerrri euskaldunetan.

### Ikerlana



**Izenburua: EAEko UDALERRI EUSKALDUNAK. 1981-2021eko zentsuak.**

**Egilea: UEMA.**

**ORRIALDEAK: 44.**

**ARGITALPENa: 2022ko azaroa.**

**Ikerlana, PDFan:**

**[LABUR.eus/1981-2021\\_BILAKAERA](http://LABUR.eus/1981-2021_BILAKAERA)**

### Euskararen ezagutza

Udalerrri euskaldunetan hau da ezagutzaren egoera 2021ean: %73 euskaldunak dira, %13 ia euskaldunak eta %14 erdaldunak. Arnasguneetan handiagoa da ezagutza: %84 dira euskaldunak, % 8 ia euskaldunak eta %8 erdaldunak.

Ezagutzaren beheranzko joera eten egin da, 2021eko datuen arabera: ez da 2011tik beherago joan. Aurreko urteetako galera ez da berreskuratu, nolana ere, eta horrek ondorioak ditu erabilera. Euskaldun-dentsitate handieneko udalerrri gutxiago dago.

### Lehen hizkuntza

Euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa nabarmen jaitsi da azken hamarkadetan, eta bide hori ez da eten oraindik. EAEko datu orokorretan ere gertatu da jaitsiera hori, baina nabarmenagoa da udalerrri euskaldunetan. Euskaldunen profileen eragin nabarmena dauka: udalerrri euskaldunetan ere gero eta euskaldun gehiago dira euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutenak, edo etxean bi hizkuntzak jaso dituztenak. Biztanle-mugimenduak daude horren oinarrian, ez transmisioaren haustura.

### ETXeko erabilera

Erabilera-beherakada oso nabarmena da, eta galera hori ez da eten oraindik. Ezagutza txikiagoak erabilera txikiagoa dakar, baina, proportzioan, erabilera-beherakada askoz ere handiagoa da. 1991n, %72ko ezagutzarekin, % 54koa zen erabilera; 2021ean, %73ko ezagutzarekin, %41ekoa. Udalerrri euskaldunetan aldaketa demografiko handiak izan dira. Euskaraz ez dakien gero eta jende gehiago dago eta, horrez gain, euskaraz dakitenen profila ere aldatu da. Horrek eragina du erabilera.



# KUS-ENTZUNEZKOAK

## Gazteek IKUS-ENTZUNEZKOETAN ZER KONTSUMITZEN DUTEN AZTERTU DU UEMAK, eta ONDORIOA ARGIA DA: ERDAREN OSO AZPITIK DAGO EUSKARA ALOR HORRETAN

**UEMAk gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketa egin du. Azterlanean, Telebista, sare sozialak, streaming plataformak, musika eta videojokoaren kontsumoa aztertu du, eta euskara erdaren oso azpitik dagoela ondorioztatu du. UEMAKo kide diren herrietako 11.571 gaztek betetako inkesta du oinarri ikerketak. Diagnostikoaren larritasuna nabarmendu du UEMAK, ikus-entzunezkoena arlo estrategikoa dela eta, beraz, erabaki sendoak hartzea ezinbestekoa dela adieraziz.**



LH4tik Batxilergoko 2. maila bitarteko ikasleen 11.571 inkesta jaso ditu UEMAK, eta erantzunekin osatu da ikerketa.

Irailean Eusko Legebiltzarrean eta urrian Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zuen UEMAK gazteen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko ikerketa, gaiak hizkuntza-ohituretan duen eraginagatik alderdiei horren berri emateko beharra ikusita.

UEMAk bi agerraldietan nabarmendu zuenez, ikastetxeak eta udalak bidelagun dituela egin du ikerketa. “Eskola eta herri askotan kezka handia sumatu dugu ikus-entzunezkoen kontsumoak gaztetxoek hizkuntza-ohituretan duen eraginagatik.

Hori bideratzeko lehen pausoa izan da honako hau, errealitatea aztertzea eta datuetara ekartzea. Bigarren zeregina dator orain: diagnostikoaren argitan neurriak hartzea, egoera iraultzeko premia agerikoa baita”.

### ALDAKETA BEHARRA, ZORTZI PUNTUTAN LABURTUTA

Ikerketaren ondorio gisa, honako gogoeta hauek aurkeztu ditu UEMAK Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan.

**1. ALDAKETA HANDIAK.** Ikus-entzunezkoen panorama asko aldatu da denbora gutxian, eta horrek eskatzen digu begirada zabaltzea. Mugitu egin behar da eta gaiari heldu behar zaio, urgentziaz.  
**2. FIZKIOA.** Gaztetxoek fikzioa bilatzen dute, eta behar dugu apustu sendoago bat. Apustu indartsuak egitean iristen dira emaitzak: *Golazen* telesaila da adibidea, lortzen baitu etxean eskaraz egiten ez duten gaztetxoengana ere iristea.  
**3. RTVE.** Mahai gairean jarri behar da RTVEren ardura ere: milaka gaztetxok jotzen dute egunero RTVEra, marrazki bizidunak ikustera, eta euskarak ez dauka batere presentziarik RTVEen.

**4. PLATAFORMAK.** Azken hilabeteetan ikusi ditugu urrats batzuk plataformetan, baina oso ahulak dira oraindik: pauso horiek areagotu eta sakondu egin behar dira, eta arautu, ez dadin dena haien berrondatearen esku geratu.  
**5. ERREFERENTEAK.** Sare sozialetan nabari da euskarazko erreferente falta, eta jadanik sareetan ari direnen ikusgarritasun falta. Horrek, kontsumoan ez ezik, eragina du gaztetxoek jardunean ere: eguneroko hizkuntza euskara izan arren, sare sozialetan erdarara jotzen dute.  
**6. SORTZAILEAK.** Erreferenteak behar ditugu, beraz: erreferenteak sare sozialetan, ikus-entzunezkoetan eta kultur arloan

oro har. Euskal sortzaileen aldeko apustua behar dugu, baita ikus-entzunezkoetan ere. Eskaintza asko ugaritu da, baina hutsune handia daukagu oraindik.  
**7. HIZKUNTZA POLITIKAK.** Sendoago heldu behar diogu gai honi. Agerikoa da ikus-entzunezkoek zer neurritan eragiten duten gaztetxoek hizkuntza-ohituretan, eta hainbat eremutan ari dira atzerapausoak sumatzen gaztetxoek erabileran. Ez da faktore bakarra, baina gazteen oso nabarmena da eragina.  
**8. IKUSPEGIA.** Badugu, beraz, erantzun beharreko galdera bat: hizkuntza-komunitate gisa, herri gisa, zein da gure eredu eta apustua ikus-entzunezkoen arloan?





# inema euskaraz

## Abian da ZINUEMA, zinema aretoetan euskarazko eskaintza areagotzeko sortutako ekimena

Zinema aretoetan euskaraz duen eskaintza urriari erantzuteko asmoz, Zinuema egitasmoa sortu du UEMAK, Tinko Filmeak-ekin elkarlanean. Euskarazko 12 ikus-entzunezko biltzen dituen egitaraua da ekimenaren oinarria, eta eskaintza zabalago baten esperientzia pilotua izango da. Igorren, Etxarri-Aranatzen, Azpeitian eta Ataunen eskainiko dira askotariko filmak eta dokumentalak, eta geroago eskaintza beste herrietara zabaltzea da asmoa.

Azken ikerketek argi erakutsi dute euskarazko kultur kontsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoela. Euskal Herri osoan gertatzen da hori, baita udalerrri euskaldunetan ere. Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruz UEMAK argitaratutako ikerketak ere azalarazi du pantailetan erdarazko edukiak ikusten dituztela batez ere nerabeek, eta horrek eragin nabaria duela hizkuntza-ohituretan. Kontsumoan eragiteari begira, UEMAK ezinbestekotzat jo du eskaintza areagotzea. UEMAREN helburu nagusietako bat da udalerrri euskaldunetan euskaraz bizitzeko aukerak bermatzea, eta Zinuema ekimena beste urrats bat da ildo horretan.



Urrian aurkeztu zuten Zinuema ekimena UEMAK eta Tinko elkarrekin, ekimenean parte hartuko duten udalekin batera.

### Eskaintza zabalago baterako lehen urratsa

UEMAK ekimen honetan bidelagun duen Tinko Filmeak-ek 30 urte daramatza zinema aretoan euskarazko zinema eskaintza sustatu eta bermatu nahian, eta argi du Zinuema programa pilotua

dela eta lagungarri izango dela laster batean udalerrri euskaldunetan eskaintza egonkorragoa diseinatu ahal izateko. Tinkoko Iñigo Arandiaren hitzetan, “probatu nahi dugu egingarria izango ote litzatekeen etorkizun batean egitaraua eskala handiagora eramatea, herri eta batez

ere aste gehiagoko eskaintza batera”. Horregatik hautatu dituzte hainbat formatutako lanak. “Izan ere, gaur egun ezin da bideratu urte osoko programazioa euskarazko filmekin soilik. Formatu berriekin, aretoetan euskaraz goza daitekeen ekitaldi kopurua handitu nahi izan dugu”.

### Ikus-entzunezkoen egutegia, astez aste

Honako hauek dira azaroaren 24tik otsailaren 19ra eskainiko diren filmak, dokumentalak eta ikus-entzunezkoak.

#### Azaroak 24-27:

Zure plateran hasten da mundua.

#### Abenduak 4-8:

Izurde mutikoa.

#### Abenduak 18:

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, zuzenean.

#### Abenduak 28-30:

Izotzetako erregina.

#### URTARRILAK 8:

Nire zirkua.

#### URTARRILAK 12-15:

Black is Beltza II: Ainhoa.

#### URTARRILAK 22:

Gabi.

#### URTARRILAK 28-29:

Go!azen 9.0. Azken atalaren aurre-estreinaldia.

#### OTSAILAK 5:

Irabazi arte! Bigarren denboraldiko lehen atala. Aurre-estreinaldia.

#### OTSAILAK 8-12:

Emakumeak film laburrean. 5 film laburreko bilduma.

#### OTSAILAK 19:

Elkano, lehen mundu bira.



Egitasmoaren eskaintza biltzen duen kartela.





## 'INTXAURRA' ANTZEZLANA ESTREINATU DU MAIRU TALDEAK, ARNASGUNEEN GARRANTZIA OHOLTZA GAINERA ERAMANDA



Azpeitian estreinatuta zutenetik, Iruritan, Markina-Xemeinen, Abaltzisketan eta Lesakan ikusi ahal izan da *Intxaurra*. Aramaion, Oñatin eta Etxarri-Aranatzen dira hurrengo emanaldiak.

**Azaroaren 18an estreinatuta zuten Mairu antzerki tailerrak 'Intxaurra' antzezlana, Azpeitiko Antzerki Topaketetan. Arnasa Gara ekimenaren Arnasguneak antzerki-beka irabazi zuen iazko abenduan, eta antzezlana prestatzeko egonaldia Azpeitiko Dinamo Sormen Gunean egin dute aurten. Gaixorik dagoen Intxaurrondoaren iruditik abiatuta, enborra biziberritzearen beharra islatzen du antzezlana, gainerako adarrek ere osasuntsu iraun dezaten.**

Arnasa Gara ekimena 2019an abiarazi zuten UEMak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, udalerrri euskaldunen eta arnasguneen garrantzia nabarmentzeko, eta euskarari egiten dioten ekarpena aitortzeko. Ekimen horren baitan, arnasguneen garrantzia antzezlana batean islatu ahal izateko beka sortu zuten, eta Lesakako Mairu antzerki tailerra gailendu zen deialdian. Aurten aritu dira antzezlana sortzen eta mamitzen. Gaizka Sarasolak idatzi du testua, eta Manex Fusch izan dute lagun zuzendaritza lanetan. Azpeitian estreinatuta eta gero, hainbat udalerritan izango da ikusgai *Intxaurra* hurrengo asteotan eta hilabeteotan.

## IÑAKI ARREGI IKERKETA BEKAREN IRABAZLEEK AMAITU DITUZTE LANAK, ETA URTARRILEAN PLAZARATUKO DITU UEMAK

**Iñaki Arregi ikerketa bekaren bigarren deialdian gailendu ziren lanak amaitu dituzte ikertzaileek. Bi lan saritu zituen iaz eramanaiak. Batetik, arkitektura eta hirigintza ikuspegitik herri euskaldunak diseinatzeko gida. Bestetik, euskal gazteen hizkuntza autoestimuarri dagokiona: analisia eta egoera iraultzeko proposamena. Urtebete izan dute irabazleek lana amaitzeko, eta azaroan UEMARI aurkeztu diote egindakoa. Urtarrilean zabalduko ditu UEMAK.**



Euskal gazteen hizkuntza autoestimuan eragiten duten faktoreak ikertu ditu saritutako lanetako batek.

June Furundarena, Leire Sanchez eta Jon Izetak osatutako lantaldeak *Euskal gazte hiztunen hizkuntza autoestimua: faktoreen analisia eta egoera iraultzeko proposamena* izeneko ikerketa egin dute, gazteen artean euskararen erabilera hizkuntza-autoestimuaekin estuki lotuta dagoela ohartuta. Saioa Zuazubiskar arkitektoak, berriz, *Herri euskaldunak diseinatzen*. *Eragin lingustikoaren manuala arkitekturaren eta hirigintzan* lana egin du, euskara aintzat hartzen duten hirigintza eta arkitektura planen orube izan dadin. Egileekin batera, urtarrilean aurkeztuko ditu bi lanak UEMak, eta sareratu ere egingo ditu, udalen eta herritarren esku daitezten.

## UDALERRI EUSKALDUNETAKO HAURREN HIZKUNTZA-OHITURETAN ALDAKETA NABARMENAK IZAN DIRA AZKEN URTEOTAN

**ZENBAIT UDALERRITAN EUSKARAREN KALEKO ERABILERA APALTZEN ARI DA, ETA ESKOLETAN HAURREK GERO ETA GOIZAGO JOTZEN DUTE GAZTELERARA. KEZKA HORRETAN OINARRITUTA, UEMAK, SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRAK ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO DREAM TALDEAK IKERKETA EGIN DUTE ZAZPI HERRITAN, ELKARLANEAN, 2021EAN ETA 2022AN. IKERKETAK HELBURU GISA IZAN DU HAURRAK GERO ETA LEHENAGO GAZTELERAZ HITZ EGITEN HASTEKO ERAGINA DUTEN FAKTOREAK IDENTIFIKATzea, HERRI HORIETAKO PRAKTIKA ONAK ETA INDARGUNEAK EZAGUTzea ETA HIZKUNTZA-OHITUREN IRUDI OROKORRA IZATEA.**



Udalerrri euskaldunetako haurrek geroz eta lehenago dute erdaretarako joera.

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen errealitatea hobeto ezagutzeko, ikasleez gain, eskoletako zuzendaritzako kideekin, irakasleekin, gurasoekin eta herriko eragileekin egin dute ikerketa. Metodologia kualitatiboa erabili dute: hizkuntza biografia eta hizkuntza erretratua, testuinguruaren ezagupena, rol-jokoak, konfrontazio saioak eta eztabaida taldeak. Aztertutako herrien diagnostikoa osatu dute horrela, haurren hizkuntza praktiketan eragina duten 140 faktore identifikatuz. Ikerketa Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako herri zehatz batzuetan egin dute, elkarren arteko aniztasuna bermatuz. Herri horietako eskoletan ikusitako ezaugarrien arabera, hiru herri-profil bereizi dituzte ikerketaren egileek: haurrentzako arnaguneak, udalerrri euskaldun tipoak eta gaztelearen eragina nagusi den udalerrri erasanak. Herri tipologiaz gain, egindako azterketatik hamar ondorio nagusi atera dituzte. Oro har, eskolan gertatzen dena herrian eta helduen artean gertatzen denaren isla dela, eta geroz eta gehiago direla etxeko hizkuntza ohitura euskara ez dutenak. Ikerketaren txosten osoa, bideoak, laburpena eta informazio guztia [labur.eus/UEMAikerketa](http://labur.eus/UEMAikerketa) helbidean dago eskura.

## HIZKUNTZA-ERAGINA ARAUTZEKO LEHEN ORDENANTZAK ONARTU DITUZTE ZENBAIT UDALETAN



Hirigintza proiektuek, turismo planek eta udalak onartzen dituzten askotariko proiektuek hizkuntzan izan dezaketen eragina neurtzea eta leuntzea da ordenantza berrien orubea.

**UDALERRIAREN GARAPENARI ERAGITEN DIOTEN PLANEK ETA PROIEKTUEK HIZKUNTZAN ERAGINIK IZANGO DUTEN AURREIKUSTEA ETA NEURRIAK HARTZEA AHALBIDETZEN DU ELE ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAK. UEMAK ELE EGITEKO METODOLOGIA SORTU ETA ZEHAZTU DU, ETA ZENBAIT UDAL HASI DIRA METODOLOGIA HORRETAN OINARRITUTAKO LEHEN ORDENANTZAK ONARTZEN.**

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2016an Udal Legeak arautu eta hiru urte geroago 179/2019 Dekretuak garatu zuen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko derrigortasuna, eta orain ELE egiteko metodologiak zehaztu behar dituzte udalak, udal ordenantzen bidez. Dima, Amasa-Villabona, Azpeitia Orexa eta Lizartzako udalak izan dira ordenantzak onartu dituzten lehenengoak.







# ARNASGUNEAK

## ARNASETIK: SORMENEZ BETETAKO LEHIAKETA ARRAKASTATSUA

Euskararen arnaguneen eta udalerrri euskaldunen garrantzia nabarmendu nahi duen Arnasa Gara kanpainaren harira, Arnasetik bideosormen lehiaketa antolatu dute udazken honetan UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. 10 eta 16 urte arteko ikasleen 99 lan jaso dituzte, eta Azpeitia, Leitza, Idiazabal, Zarautz eta Berako gazteak izan dira irabazleak. Lehiaketarekin, bi helburu lortu nahi izan dira: arnaguneetako gaztetxoek euskarazko sormena lantzea eta ikasleek hizkuntza-ohituren inguruan gogoeta egitea.

Irailean abiatutako Arnasetik sormen lehiaketak urriaren 28an izan zuen amaiera, Amasa-Villabonako Gurea antzokian sariak banatzeko egindako ekitaldiarekin. Julen Portillo youtuberrak aurkeztu zuen ekitaldia, eta Sara Alonso musikariak ere parte hartu zuen, hainbat abesti eskainiz.

Ikasturte honetan lehen aldiz antolatu dute UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Arnasetik lehiaketa, udalen eta eskolen laguntzarekin, eta arrakasta handia izan du euskararen arnaguneetako gazteen artean: 99 lan aurkeztu dituzte, hiru kategoriatan.

### Sormena, Hizkuntza-Ohituren Inguruan Hausnartzeko

Kategoria bakoitzean ariketa ezberdinak landu behar izan dituzte ikasleek, beti ere euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak islatuz edota hizkuntza-ohituren inguruko lanak eta bideoak sortuz.

Kategoria bakoitzeko lan onenek eta publikoaren sariaren irabazleek 500 euroko sariak lortu dituzte, Irrisarri Land-



Saridunek urriaren 28an jaso zituzten sariak, Amasa-Villabonako Gurea antzokian egindako ekitaldian.

erako sarreretan, EITBko *Go!azen* eta *Irabazi arte!* telesailen produktuetan edota Durangoko Azokan erabili ahal izateko.

Azpeitia, Leitza, Idiazabal, Zarautz eta Berako ikasleak izan dira lehen lehiaketa honetako saridunak.

### arnasagara.eus

Sariak banatzeko ekitaldiaren nondik norakoak, argazkiak, bideoak, lan irabazleak eta lehiaketara aurkeztutako gainerako lan guztiak *arnasagara.eus* webgunean daude ikusgai.

## UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR

UEMA.EUS webgunean ez ezik, TELEGRAM, TWITTER, FACEBOOK, INSTAGRAM eta OHIKO SARE BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK INFORMAZIOA, HIZKUNTZA POLITIKARI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ.



[uema.eus](http://uema.eus) | Telegram: [UEMAeus](https://t.me/UEMAeus) · Instagram: [UEMA\\_eus](https://www.instagram.com/UEMA_eus) · Twitter: [@uema\\_eus](https://twitter.com/@uema_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz) |